




**GUERNICA-PLATZ**

Berlingo Zehlendorf auzoko Guernica Platz-ak Condor Legioaren bonbardaketa (1937) gogorarazten du. 1998an izendatu zen plaza, Zehlendorf auzoko udala eta Berlingo Euskal Etxea Gernika Deutsch-Baskischer Kulturverein-aren ekimenez. Plaza-memoriala Spanische Allee parean kokatua dago, nazi erregimenak horrela izendatu zuen etorbidea 1939an Espainiako Gerra Zibilean parte hartu zuen Condor Legioaren omenez.



// Mapa hauetan Agirre lehendakariak naziengandik ihesi bere egunkarian aipatzen dituen leku batzuk bakarrik erakusten dira.

// Charlottenburgen, identitate faltsupean bizi izan zen ostatu batean eta diplomatiko hegoamerikarrekin harremana izan zuen. Auzo honetara heldu zen bere emazte Mari Zabala, nortasun-agiri faltsuekin hau ere, beraien bi seme-alabekin.

// Agirre Wilhelmstraße inguruetan ere ibili zen; batetik, Suediara ihes egiteko beharrezko zuen dokumentazioa lortzeko eta, bide batez, erregimen naziko erdigune politikoa bertatik bertara ezagutzeko asmoarekin. Bisita hauek normalean lagun diplomazialariek egin zituen.

**// INFORMAZIO GEHIAGORAKO:**

// Egunkari originalaren eta "De Guernica a Nueva York pasando por Berlin" laneko zati alemaniararen alemanerazko itzulpenak [www.AgirreInBerlin.eus](http://www.AgirreInBerlin.eus) web-gunean daude eskuragarri

// Agirreraren lan guztiak [www.lehendakariagirre.eu](http://www.lehendakariagirre.eu)



// © Sabino Arana Fundazioa

**// AGIRRE LEHENDAKARIA**

// Jose Antonio Agirre (1904-1960) Euzko Jaurilaritzaren lehen Lehendakaria izan zen, kargu horretarako Euzko Alderdi Jeltzaleak aurkeztu zuelarik Espainiako Gerra Zibilean (1936-1939). 1936ko urriaren 7an zin egin zuen bere kargua Gernikako arbolaren azpian, 1937ko apirilaren 26an Condor Legio alemaniarrek bonbardatuko zuen hirian bertan. Zin egiteak eta bonbardaketak, beraz, Agirre eta Gernika betiko lotuta utziko zituen. 1937ko ekainean, Bilbo erori ondoren, Agirrek Santanderetik Kataluniara ihes egin zuen. 1939ko otsailaren 5ean Lluís Companys kataluniar presidentearekin batera gurutzatu zuen frantziar muga erbesterantz, Euzko Jaurilaritzaren egoitza Parisen ezarri.

// Parisetik indar aliatuekin kooperatu zuen Madril eta Berlinen aurkako borrokan. Europa okupatutik ihes egitea lortu ondoren, New Yorkera heldu zen 1941ean. 1945ean, Frantzia askatu ondoren, Agirre Parisera bueltatu zen, Europatik Jaurilaritza gidatzeko Francoren diktadura eraisten eta demokrazia berreskuratzen. Euskadiraiko asmoez gain, Agirrek hasiera hasieratik bultzatu zuen europar erakuntza militante zen demokrazia kristauren ildotik. Hala, demokrazia kristau europararen sorreran parte hartu zuen. Erbesteko urte luzeetan, Euzko Jaurilaritzaren lanak Euskal Herria faxismoaren erpeetatik askatzea izan zen helburu.

**JOSÉ ANTONIO AGIRRE (1904-1960)**

- **1904.04.06** Jose Antonio Agirre Bilbon jaio zen familia abertzale batean. Gaztetatik bere ibilbide politikoa EAJren inguruan garatu zuen. Lehenik, Bilboko Euzko Gaztedian, geroago, Errepublikak ekarri zituzten hauteskundeetan Getxoko alkate aukeratu izan zen, ondoren Madrilgo Gorteetan diputatu izan zen bigarren Errepublikako osoan lanik handiena Euskal Estatutuaren prestaketan eman zuelarik (1931-1936).
- **1936.10.07** Sortu berri den Euzko Jaurilaritzaren Lehendakari kargua zin egiten du Gernikan.
- **1937.06.19** Bilbo frankisten esku erortzean, Euzko Jaurilaritza Bartzelona eta Parisera lekualdatzen da.
- **1939.02.05** Agirre eta Lluís Companys (Kataluniako Generalitateko presidentea) muga zeharkatzen dute Katalunia frankisten eskutan erori ondoren. Euzko Jaurilaritza Parisko Avenue Marceau 11.ean kokatzen da.
- **1940.05.08** Agirrek Belgikara bidaiatzen du bere familiakide batzuk ikusi eta atseden egun batzuk hartzeko.
- **1940.05.10** Naziak Herbehereak, Belgika, Luxenburgo eta Frantzia erasotuko dute lurralde guzti hauek inbadituz. Agirre, inguratuta eta Bruselan ezkatatuta, inora ihes egin ezinda geldituko da.
- **1940 EKAINA** Agirre klandestinitatera pasatzen da "José Andrés Álvarez Lastra" abokatu panamarraren nortasun faltsua hartuz.

- Betaurrekoak jantzi eta bibotea utziz itxuraldatzen da.
- **1941.01.07** Hamburgera bidaiatzen du; **1941.01.27**an Berlinen kokatzen da.
- **1941.05.14** "María Arrigorriaga, viuda de Guerra" nortasun faltsupean babestuta, Mari Zabala, Agirreraren emaztea Berlinera heltzen da Aintzane eta Joseba seme-alabekin.
- **1941.05.23** Berlinen lau hilabete igaro eta beharrezko dokumentazioa lortu ondoren, Agirre-Zabala familiak Sassnitzera autoz bidaiatu eta handik Suediara ihes egitea lortzen du.
- **1941.08.27** Göteborgetik irten eta 27 eguneko itsasaldiaren ondoren, Agirre-Zabala familia Rio de Janeiro (Brasil) heltzen da.
- **1941.11.04** Montevideo eta Buenos Aires bisitatu ondoren, Agirre AEBetara iristen da. New Yorken kokatuko da familiarekin batera eta Columbia Unibertsitatean klaseak ematen arituko da.
- **1945-1956** 1945ean Parisera itzuli ondoren, Agirrek Nouvelles Equipes Internationales, europar demokrazia kristauren aitzindarien sorreran eta garapenean parte hartuko du.
- **1956.03.21** Agirre Berlinera bueltatu zen europar demokristauen bilera batean parte hartzeko.
- **1960.03.22** Parisen ezustean hil zen.



**AGIRRE**  
Euskal Herria Europaren bihotzean  
1941 - 2016



// © Sabino Arana Fundazioa

**// IMPRESSUM**


**// Euskal Etxea Berlin**  
Unai Lauzirika  
*Gernika Deutsch-Baskischer Kulturverein e.V.*  
Dudenstraße 10  
D-10965 Berlin  
[www.euskalnetxea.de](http://www.euskalnetxea.de)  
[info@euskalnetxea.de](mailto:info@euskalnetxea.de)

**// Aholkularitza / Testuak:**  
Dr. Ingo Niebel  
[ingo.niebel@berriak-news.de](mailto:ingo.niebel@berriak-news.de)

**// Design/Layout:**  
Sirope Projects  
Ales Landeta & Gaizka Muñoz  
[www.siropeprojects.com](http://www.siropeprojects.com)

**// INFORMAZIO GEHIAGO**  
[www.AgirreInBerlin.eus](http://www.AgirreInBerlin.eus)

**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



**//1941 CHARLOTTENBURG**

**A // PANAMAKO LEGAZIOA**  
Knesebeckstr. 74

// Dr. Federico Villalaz negozio-arduradunaren egoitza eta bizilekua, berau ibili zen, besteak beste, bere "herrikide faltsu" Álvarez doktorea/Agirre laguntzen.

**B // VICTORIA HOTELA**  
Kurfürstendamm 203/204

// Agirrek Berlinen ostua hartu zuen hotela, German Guardia Jaén kontsul panamarrarekin batera.

**C // DOMINIKAR ERREPUBLIKAKO LEGAZIOA**  
Wielandstr. 25-26

// Roberto Despradel enbaxadorearen eta Agirrek Berlingo egonaldian izan zuen laguntzaile handienetariokoren egoitza eta bizilekua.

**D // VENEZUELAKO KANTZELARITZA**  
Kurfürstendamm 186

// Mari Zabalarri Berlinera "María Arrigorriaga, viuda de Guerra" nortasun faltsupean iristeko laguntza eman zioten lekua.

**E // TUSCULUM RESTAURANT**  
Kurfürstendamm 68

// luxuzko jatetxea, Berlingo goi-mailakoak, elite politikoko kideek eta diplomatikoez maiz bisitatu zuten. Agirrek bitan jan zuen hemen bere lagun diplomaziariek.


**F // VILLA MAJESTIC HOTELA**  
Brandenburgische Straße 47

// 1941eko maiatzean, Mari Zabala Aketxek, Agirreraren emaztea eta beraien seme-alabek, Aintzane eta Inaki, ostatu hartzeko erabili zutena

**// AGIRRE, III. REICHEAN ERBESTERATUA**

// 1941ean, klandestinitatera pasatzea erabaki zuenean, Jose Antonio Agirrek ez zeukan ihes egiteko plan zehatzik ezta lagundu ziezaiokeen erakunderik ere. Anberesen kasualitatez topatu zuen German Guardia Jaen kontsul panamarra, honek eman zion "Dr. José Andrés Álvarez Lastra" abokatuaren identitate faltsua zuen pasaporte erreala. Bitartean, Parisen, Francoren polizia sekretuek zelatan eta erbesteratu politikoak atxilotzen ziharduten, disidenten zerrenda beltzak osatuz. Horrela identifikatu eta atxilotu zituzten, esaterako, Lluís Companys, Generalitateko Presidentea, edo Julian Zugazagoitia, kazetari eta ministro ohi bilbotarra; ondoren Espainiara estradita eta fusilatua biak.

// Gauzak horrela, Guardia Jaen Agirrerentzako, Alemania zeharkatu eta Grezia igaroz, okupatutako lurraldeetatik ihes egiteko planak ontzen hasi zen, hasieran Lehendakariaren familia Belgikan utziz. Ez hasieran pentsatutako erara, baina zoriekoa izan zen Agirreraren ihesa. Horretarako, Lehendakariak baliatzaileak izan zituen Europan (hainbat hegoamerikar diplomatiko, besteak beste) eta Ameriketan (Manuel Ynchausti, euskal jatorrizko filipinar diruduna, esaterako). Batzuk immunitate diplomatikoan estalpetu zuten, besteak diruz lagundu ziren. Laguntza guztiok Agirreraren familiarenganaino heldu ziren eta Europatik ihes Agirre-Zabalatar laurek egitea lortu zuten, Jose Antonik, Marik eta bion seme-alabek, Aintzane eta Josebak. Ihesa, azkenean Suediara igaroz eta han itsasontzi baten enbarkatu ondoren Ameriketara helduz gauzatu zen.



**//1941 WILHELMSTRASSE**

**1 // FRANTZIAKO ENBAXADA**  
Pariser Platz  
// 1939ko gerraren ondorioz itxia.

**2 // EEBB-ETAKO ENBAXADA**  
Pariser Platz 2  
// pareko Eberstraßean (garai hartako Herman-Göring-Str) amerikar kontsulatua kokatzen zen. Agirre-Zabala familia bertan aurkeztu zen bisa estatubatuarra lortzeko.

**3 // ADLON HOTELA**  
Unter den Linden 77  
// Alberto Zerega Fombona, Venezuelako Legatuaren bizilekua, zuen Agirre-Zabala familiaren ihesean Lehendakariaren laguntzaileetarikoa bat.

**4 // HOLOKAUSTOAREN MONUMENTUA**  
Ebertstraße/Behrenstraße  
// Joseph Goebbels, propaganda ministro naziaren egoitza ofiziala, egun Holokautoaren Monumentu edo Oroigarria.

**5 // III. REICHAREN ZENTROA**  
Wilhelmstraße  
// III. Reicharen erdigune politikoa, Kantzelaritza eta Ministerio batzuen egoitza. Agirre, bere lagun diplomazialari batzuek lagunduta, hemen zehar ibili zen paseatzen bertan gertatzen zen guztia obserbatuz.

**6 // REICHAREN KANTZELARITZA**  
Wilhelmstraße/Voßstraße  
// Hitler Kantzelaritzako balkoian agertzen zen jendaurrean. Agirrek kaletik jarraitu zuen Japoniako Atzerri Ministroari egindako harrera ofiziala 1941eko martxoan.

**7 // REICHAREN AIRE-MINISTERIOA**  
Leipziger Straße 7/Wilhelmstraße  
// Hermann Göringen egoitza ofiziala, Kondor Legioaren sortzailea, Gernika bonbardatu eta jeneral kolpistei Espainiako Gerra Zibila (1936-1939) irabazten ahalbidetuko zion Legioa. Egund Ogasun Ministerio Federala.

**8 // GESTAPOREN EGOITZA**  
Niederkirchnerstraße [Ihesean Prinz-Albrecht-Straße 8]  
// Gestapo eta SS-eko beste atal batzuen egoitza nagusia. Egund "Topographie des Terrors" dokumentazio-zentroa.

**9 // ST. HEDWIGS KATEDRALA**  
Behrenstraße  
// Katedral katolikoa, 1941.3.14an Agirre Alfonso XIII.aren hileta elizkizunak ezkutuan jarraitu zituen bertan.

**10 // MUSEO MILITARRA**  
Unter den Linden  
// Agirrek behin baino gehiagotan bisitatu zuen "Museo Militarra", berak horrela izendatzen zuena, Unter den Lindenekoa paseo luzean baita kokatua. Egund Alemaniako Museo Historikoa.

**// AGIRRE, BEHATZAILE ISILA**

// Agirrek, nahiz eta euskara, gaztelania eta frantsesa hitz egin, ez zekien alemanez. Halere, 1941eko udaberriko Alemaniako giro politiko eta sozialaren behatzaile ezkutu eta isila izateko aukera izan zuen eta ez zuen abagunea alperrik galdu.

// Bere egunkarian bildu zituen aire-erasoak eta janari zein tabako errazionamenduak. Errefuxiatu bizimoduak eskaintzen duen klandestinitatean mugitu zen.

// Oharkabean mugitu zen, denbora irakurtzen, bere babesleekin hizketan, betebeharrak erlijiosoak betetzen, zineman eta jatetxeetan pasatzen zuen bitartean. Halere, Agirrek ez zion inoiz utzi begirale ikusmin eta interesatua izateari, esaterako, bertatik bertara jarraitu zuen Japoniako Atzerri Ministroaren bisita. Bere egunkarian, bizi zuenaren alderdirik pertsonalena islatu zuen, egoera propioa ironiaz baina beti Probidentzian esperantza jarritz deskribatuz. Bere familiarekin batera Alemaniatik irten nahian, katoliko fededuna izaki, ez zituen sekula bere esperantzak Jainkoarengandik urrundu.

// "De Guernica a Nueva York pasando por Berlin" (1943) obra autobiografikoan pasarte berriak gaineratu zituen, segurtasun arrazoia eta leku gabeziagatik egunkarian paratu ez zituenak.

// Japoniako Atzerri Ministroaren Harrera Ofiziala (1941eko martxoan)

